

Euskararen jatorria


Europako hizkuntza gehienen jatorri desberdinak ezagutzen ditugu jada; euskararen kasua, berriz, salbuespena da.

Jakin badakigu zuela 3000 urte indoeuropar hizkuntza errotu zela Indian eta Europa osoan. Hizkuntza hartatik beste hizkuntza asko jaio zirela, eta jaiotako horietatik beste asko... Oraingo Europako hizkuntza gehienek, beraz, indoeuropar hizkuntzan dute jatorria.

Baina, zer gertatzen da euskara hizkuntzarekin? Ezer gutxi dakigu. Hori bai, seguru gaude ez dela indoeuropar hizkuntza horren ondorengoa. Arazo larriak ditugu ikerlan fidagarriak egiteko, duela 3000 urteko euskara nolakoa zen aski ezagutzen ez dugulako. Dena den, euskararen jatorria ulertu ahal izateko, hainbat teoria plazaratu dira; garrantzitsuenak honako hauek dira:

- **Eusko-iberismoa.** Hizkuntza iberiarra penintsulako nagusia zen erromatarrek etorri aurretik. Horretaz jabetuta, hizkuntza iberiarraren eta euskararen arteko lanak egin dira eta antzekotasun lexikalak aurkitu dituzte; horregatik zientzialari batzuek uste dute ahaide hurbilak izan daitezkeela. Hala ere, ez dugu oso ongi ezagutzen hizkuntza iberiarra, eta gainera, lexikoa da edozein hizkuntzatan errezen aldetzen den atala.

- **Euskara eta hizkuntza kamitiko-semitikoak.** Afrikako iparraldeko hizkuntza batzuk dira, horren adibidea bereberea delarik. Ez dago, hala ere, froga sendorik aurkitu bi hizkuntza familia hauek elkartzeko.



- **Euskara eta kaukasoar hizkuntzak.** Toponimian oinarritzen da. *Gorbeia*, *Aralar* eta *Urumea* bezalako leku-izenek antzekotasuna dute kaukasoko hizkuntzetako beste toponimoekin.

- **Euskara hemengoa.** Beste hizkuntzalari batzuek uste dute euskara hemen jaio eta hazi zela. Horretarako oinarritzko lexikoa aztertu zuten eta konturatu ziren lanabesen hitz batzuek *aitz-* erroa zutela; esate baterako, *aizto*, *aizkora*, *aitzur*... Joxe Miel Barandiaran antropologoaren aburuz, Harri Aroko gizakien bizimodua erakusten dituzte.